

2015eko obrak

 Orioko portuko ezkeralderako
behin-behineko sarbidea

Laburpen-fitxa



Deskribapena		Zenbatekoa	Epea
1. proiektua Orioko portuko ezkerraldeko trazadurarentzako aukerei buruzko ikerlana eta eraikuntza-proiektua idaztea	LKS 2014	11.900 €	8 aste
2. proiektua Orioko portuko ezkerralderako behin-behineko sarbidea	SESTRA 2015	8.500 €	4 aste
Obrak egitea	Construcciones MOYUA	1.123.527,28 €	9 aste
Esleipena	2015eko otsailak 27		
Kontratua sinatzea	2015eko martxoak 31		
Obrak likidatzea	2015eko abuztuak 3	1.109.631,14 €	
Obretarako Laguntza Teknikoa	Mugarri Topografia	6.800 €	9 aste
	Darzal-Seguridad y Salud	2.755 €	
Obren zuzendaritza	Idoia Ortubia Rodríguez	Obren zuzendaria	
Gipuzkoako Portuen Lurralde Zerbitzua	Joseba Olaskoaga	Obren zuzendaritza-taldea	
	Leire Caminos eta Zuriñe Villa Praktiketako bide-ingeniariak		

**GAUZATUTAKO OBREN DESKRIBAPENA**

Obra horietan Orioko portuko ezker aldeko instalazioetarako behin-behineko ibilgailu-sarbide bat egin da, itxita baitzegoen 2014ko udaberrian mendi-hegalean jazotako luiziaren eraginez.

Behin-behineko trazadura berriaz gain, ibaian gorako norabidean haren aurretik zegoen bide zatia konpondu da, hutsune eta oinusketa handiak baitzituen, oinarri zuen betegarriaren zatiki finak galtzearen ondorioz.

Hortaz, obrak argi eta garbi bereizitako bi guneetan gauzatu dira:

- **1. Gunea:** Oribazar hondartzaren albo batetik bihurguneraino doan 152 metroko errepidea konpontzea. Obra-unitate nagusiak honako hauek izan dira:
 - Errepideari eusten dion harri-lubetaren goialdea burugabetzea, gunea sanotzeko eta errepidearen azpiko zuloak aurkitzeko, halakorik bazegoen. Aldi berean, eremu horren gaineko zoladura eraitsi egin da.
 - Harri-lubeta berrelkartzea eta zigilatzea, zatiki finak galtzearen eta harri-lubeta bera higitzearen ondorioz sortutako hutsuneak murrizteko.
 - Aurrekoa indartzeko > 1 t-ko harri-lubeta bat gauzatzea. Harri-lubeta berri horrek 1,5 metroko sakonerako zapata bat hartu du oinarri, hori ere > 1 t-ko harri-lubetaz osatua, sare geotestil bat ezarri ondoren.
 - Tarte horren luzera osoan zehar hormigoi armatuzko inposta berri bat gauzatzea, harri-lubetaren eta bidearen arteko erremate moduan.
 - Kaltetutako tartearen alboak asfaltatzea.
- **2. gunea:** betegarri berri baten gainean egindako 200 metroko behin-behineko trazadura berria, 1. tartearen amaitzen zen bihurgunetik zutuin-oholeko kairainokoa. Obra-unitate nagusiak:
 - Honako hauek osatutako betegarri berri bat:
 - harrobitik ekarritako eta zatiki finak gabeko P>3 kg-ko kareharriko ale-materialeko nukleoa;
 - lodiera ertaineko P>50 kg-ko ale-materialeko iragazki-geruza, ezpondaren nukleoaren eta azaleko harri-lubetaren artean;
 - goiko harri-lubeta bat, 2 metroko sakonerako zimendatze-zapata baten gainean gauzatua, hura ere iragazki modura aritzen den sare geotestil baten gainean kokatutako > 1 t-ko harri-lubeta batez osatua.
 - Zeharkako drainatze bat, trazadura berriaren betegarriaren enborearen ondoan 2.000 mm-ko diametroko hormigoi armatuzko bi hobi ipinita, ibaiaren ur-laminaren gainazalak ahalik eta eragin txikiena jasateko.
 - Oinarriaren eta bide-zoruaren osaketa: zabor-legarreko geruza bat zabaldu da nukleoaren betegarriaren gainean; aldi berean hormigoizko inpostak gauzatu dira errepidearen alde bietan, eta ondoren bide-zorua asfaltatu da.
 - Segurtasuna eta seinaleak: bide berriaren alboko muga gisa New Jersey hesiak jarri dira alde bietan, beharrezko bide-markak margotu dira 1. nahiz 2. guneetan eta beharrezko seinale bertikalak kokatu dira.

Bide berriaren hasieran lehengo atea birkokatu da, bai eta portuko informazio-seinaleak ere.

INGURUMEN HOBETUNTZAK



Zeharkako drainatze bat instalatu da trazadura berriaren betegarri berrian, ibaiko ur-laminaren gainazalak ahalik eta eragin txikiena jasateko, eta, horrez gain, eremu horretako florak eta faunak kalterik ez sufritzeko.

PAISAIA INTEGRAZIOA

Etorkizunean, luizia gertatutako lekuan, sarbide zaharraren asfaltoa altxatuko da amildegia paisaiarekin integratzea ahalbidetuko duten landareak ipintzeko.

OBREN EZAUGARRI OROKORRAK

Hondeaketa	4.300 m ³
Ertzentzako harri-betegarria P> 3 kg	8.500 m ³
Ertzentzako harri-betegarria P> 50 kg	3.850 m ³
Harri-lubeta P> 1000 kg	11.050 m ³
Zabor-legarra	450 m ³
Geotestila	2.600 m ²
Hormigoia	700 m ³
Asfaltatzea	1.400 m ²